

## BATTERY-DROP

### Funtsezko jarduerak

Gure helburu estrategikoa bete dadin, zenbait gauza hartu beharko lirateke kontuan, baina konkretuki, aplikazioaren programazio zein honekiko egindako publizitatea. Aplikazioa ez da inola ere konplexu hauetakoa izango, azkenean, bezeroari interesatzen zaiona lortzeko ere urrats gutxi batzuk besterik ez direlako eman behar, beraz ezinbestekoak diren xehetasunak bakarrik nabarmenduko dira bertan. Aldi berean, bai publizitate, bai aplikazioak bezeroari konfiantza eman behar dio, gaur egun “aplikazio pirata” asko daude eta hau ere izatea den edo ez dudan jartzea interesatzen zaigun azken gauza da. Gure helburua, behin aplikazioa deskargatuta, inongo arazorik gabe funtzionatzea da eta lehen bailen bezeroa estualdi hartatik ateratzea, hortaz, aplikazioaren programazioa primerakoa izatea komeniko litzaiguke, funtzionamendua halatsua izateko.

Publizitatearen inguruan ere ezer desberdinik ez, behin iragarki hori ikusita, ea funtzionatuko lukeen ala ez frogatzeko kuriositatea sortzea bilatzen dugu guk, eta interes on guztiaz, hau deskargatzea. Esperientzia ona izango balu, aplikazioaren bide gehiago irekiko litziguke, azkenean, bere ingurukoei berritasun honi buruz hitz egingo balie, hauek ere probatzera animatuko zirelako, eta geroz eta jende gehiagok deskargatu “Battery-drop”, geroz eta arrakasta handiagoa bermatuko genukeelako.

Dena ez da lehenengoan ondo ateratzen ordea, eta akatsen bat edo beste gerta lirateke. Horrelako kasu batean, gurekin kontaktuan jartzeko atal bat izango luke aplikazioak. Arazoa bertan idatzi eta “bidali” botoiari sakatuta, guri automatikoki mezu bat iritsiko litzaiguke korreora, eta behin hura irakurrita bezeroarekin harremanetan jarri ahalko ginatke zein aplikazioaren huts egite hori konpondu behar dela kontzientziatu.